



Garai bateko trenbidea, zubiaren gainetik pasatzen zena, eta alboan trenbide berria. Gotzon ARANBURU | ARGAZKI PRESS

“Reparación y Construcción de Puentes durante el Glorioso Movimiento Nacional” izeneko txostenean, Ormaiztegiko zubiari buruzko atalak hartzen du toki gehien. Horrek, nolabait, obra haren garrantzia nabarmentzen du.

Ormaiztegiko zubia ireki eta bi hilabetera, Bizkaiko eta Gipuzkoako Eibar eta Elgeta herrien aurkako faxisten ofentsiba orokorra eman zen. Eraisteak faxisten intententzia militar orokorreko planak atzeratzea ekarri zuen bezala, Molaren taktikari –sakabanatuta zituen indarrak, oso denbora motzean, oso sakabanatuta zeuden helburuen kontra mobilizatzearena alegia– eta tropei kostu militar handia eragin zien bezala, trenak berriz martxan jartzeak Bilboren erorketa jo puntuan zuen ofentsiba azkartzea ekarri zuen.

Tonaka eta tonaka material mugitu zitezkeen orain, eta ez soilik gerrarako baizik eta intendentzia eta hornikuntzarako ere bai. Honela, etengabeko mugimenduan zegoen soldaduen masa handi bat sostengatu zezaketen faxistek, gerrako esfortzua biderkatu zezaketen eta “Operación Bilbao” izeneko indartu ahal izan zuten.

Izan ere, trena, indar mekanizatuak, soldaduak eta munizioa garraiatzeko motorra izateaz gain, beste osagai estrategiko bat ere bazuen faxistentzako. Aliatu aleman eta italiarren presioarekin batera gero eta eskuragarriagoa zuten Bizkaiko eta Gipuzkoako botin industrialari probetxu guztia ateratzeko helburuari begira, ezinbestekoa zutelako.

AZKEN HITZA

Ormaiztegiko zubiaren eraistea ekintza gogoangarria da. Hain denbora gutxian, bertatik bertara frontea zutela, sopleteekin biaduktu bat moztea ez baita batere erraza. Adorea erakutsi zuten langile haiek, herri metalurgiko honetan dagoen esperientziak nolakoak egiteko gai denaren neurria.

Egongo dira, seguru asko, gordean geratu diren beste izen batzuk, edo, zoritxarrez, ahanzturan betiko galdu direnak. Baina ezagutzen ditugun ekintzaileek, askok beren biziarekin ordaindu zutenek, merezi dute gure aitortpena. Haien izena eta izana gogoan atxikitzea.

Esker onez, agur eta ohore Jose, Antonio, Florencio, Pedro, Emilio, Urbano eta beste guztiak.

V

Xabier Mikel Errekondo

Via, Voluntad, Votar y Victoria. Kataluniak egina du

hautua, irabazteko unea da eta V erraldoiak erakutsi du bidea: herritarren borondatea errespetatu eta –ariketarik demokratikoena– bozkatu. Ezin uka katalanak irudimentsuak direnik. V irudiak gauza asko ditu adierazten, baina guztien gainetik pixel bakoitza eta guztiak batera, herritarrek, lehen lerroan eta prozesuaren protagonista. V ez da irudi polit soil bat. Etsaia ere ohartu da.

Bartzelonatik bueltan, bularrean V erraldoi bat ekarri dut tatua. Begietara ikusezina bada ere, hortxe daramat, esteladak gidatutako lerro hori eta gorri amaiezinen dantzak sutan pirograbatutako lubaki sakona. Bero sentitu ditut Kataluniaren bihotz eta giharrek.

Sentitu dut nola Bartzelonaren arteria nagusiak herritarrez bete diren, eta nola bakoitzaren odol tanta batez zainak uholdetu egin diren herri katalan berriaren bihotza taupadaka hasteraino. 1714ko errautsak hauspotu eta, hiruherhun urtera, sugar gorituek erditutako herri libre balitz bezala. Izan ere, orain urtebete iparretik hegoraino Katalunia gurutzatu zuen gorputz erraldoiak ezinbestean behar zuen bihotz taupadarik, aitzinerat egingo bazuen.

Bularretik bizkarrerainoko saskonera duen lubakia goldatu dit plazerezko erredurez Diadak ortzegunean.

Datorren ortzegunean, 18an, independentzia gailenduko ez balitz ere, eskoziarrek irabazi dute jada, bidea prest dute eta izan nahi dutena erabakitzeke. Espainiaren ukazioaren gainetik, Kataluniarrak ere irabazten ari dira eta geldiezina da dagoeneko irabazi arte rainoko borondatea, geldiezina herri berriaren bihotz taupada. Gu ere bagoaz. Ari gara gure bidea egiten. Pazientzia baina odol beroz. Bat nator Arnaldorekin irabazteko jaio ginela eta prest gaudela dionean. Gure borondatea bada, irabaztea gure esku dago. •